# BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

## 4920

*EBAZPENA, 2011ko irailaren 16koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, goi mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzen ebazpen-proposamen bat eman eta organo honi aurkeztuko dion Balorazio Batzordearen batzordekideak izendatzen dituena, eta batzorde horren osaeraren berri ematen duena.*

Ikusirik goi mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzen deialdia arautzen duen 2011ko uztailaren 27ko Agindua.

Kontuan izanda aipatuta Aginduaren 9. artikuluak alde batetik, aurkezten diren eskabideak aztertzeko, eta organo honi aurkeztuko dion ebazpen-proposamen arrazoitu bat emateko Balorazio Batzorde bat osatuko dela adierazten duela; eta bestetik, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak Kirol Zuzendaritzako bi teknikari izendatuko dituela batzordekide gisa eta aipatutako Batzordearen osaera argitara eman behar dela esaten duela.

Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Balorazio Batzordearen kideak izendatzea eta batzorde horren osaeraren berri ematea. Batzordeak honako kide hauek izango ditu:

Batzordeburua: Patxi Mutiloa Aldazabal (Kirol Zuzendaria).

Batzordekideak:

● Elisabet Altube Bengoa (Kirol Zuzendaritzako Arduradun Teknikoa).

● Carolina Muro Arroyo (Kirol Zuzendaritzako Teknikaria), batzordeko idazkari modura jardungo duena.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 16a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.